



ikasmina:

Ikasmina DoKS:

Gipuzkoan bitza guztian zeharreko
ikasketari buruzko dokumentuak

Hobaridun formakuntza Euskadin

71. dokumentua

2020ko iraila

Gipuzkoa, ikasten duen lurraldea.
Gipuzkoa, un territorio que aprende.

Departamento de Innovación y Sociedad del
Conocimiento. Diputación Foral de Gipuzkoa



GIPUZKOA
berrikuntza lurraldea

1. Aurkezpena	3
1.1. Hobaridun formakuntza	3
2. Hobaridun formakuntzaren bidez ikasten duten pertsonak	4
2.1. Parte-hartzea hobaridun formakuntzan	4
2.2. Parte-hartzaileen profila eta formakuntza-orduak.....	9
3. Langileei hobaridun formakuntza eskaintzen dieten enpresak	11
3.1. Hobaridun formakuntza eskaintzen duten enpresen ezaugarriak	11
3.2. Formakuntza eskaintzen duten enpresei emandako kreditua	13
3.3. Parte-hartzaile bakoitzeko emandako kreditua	15
4. Ondorioak.....	17
4.1. Laburpena: emaitza nagusiak.....	17

1. Aurkezpena

1.1. Hobaridun formakuntza

Fundae¹ estatu-mailan hobaridun formakuntza bultzatu eta koordinatzeaz arduratzen den erakundea da, eta, Enplegu Zerbitzu Publikoarekin (SEPE) lankidetzan, enpresek programatutako prestakuntza finantzatzeko funts publikoak kudeatzeaz arduratzen da.

Helburu nagusia enpresek eta langileek konpetentziak hobetzen laguntzea da, lan-merkatuaren eta ekoizpen-sektoreen aldaketei kalitatezko prestakuntzaren bidez aurre egin ahal izateko.

Hobaridun formakuntzak langile guztiei zuzendutako doako prestakuntza lortzea ahalbidetzen du, diru-laguntzen bidez². Horretarako, enpresek kreditu bat dute urtero, Gizarte Segurantzari azken urtean Lanbide Heziketaren kontzeptuan egindako kotizazioek zehazten dutena eta lantaldeak prestatzeko erabiltzen dena.

Dokumentu honek Euskadin hobaridun prestakuntzak izan duen bilakaera aztertzen du, eta, lehenik eta behin, ikasten duten pertsonen ezaugarriak eta ikasten ematen duten denbora aztertzen ditu. Bigarrenik, hobaridun formakuntza eskaintzen duten enpresen profilaren azterketa labur bat jasotzen du, eta prestakuntza-jarduera horiek burutzeko emandako finantzaketan sakontzen da. Azkenik, egindako azterketaren emaitza nagusiak jasotzen dituen atal bat barneratzen da.

Emaitza horiek Gipuzkoako egoerarekiko orientagarritzat jotzen dira.

¹ Enpleguan Prestatzeko Estatuko Fundazioa.

² Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorreko afiliatuen kotizazioek estaltzen dute.

2. Hobaridun formakuntzaren bidez ikasten duten pertsonak

2.1. Parte-hartzea hobaridun formakuntzan


Gero eta jende gehiagok parte hartzen du Euskadin hobaridun formakuntzan

2019an, 232.382 pertsonak parte hartzen dute hobaridun prestakuntzan Euskadin; horrek, % 2,8ko hazkuntza suposatzen du aurreko urtearekin alderatuta (zehazki, 8.509 parte-hartzaile gehiago).

Gainera, nabarmentzekoa da joera hori iraunkorra dela denboran, kontuan hartuta azken hamarkadan ia bikoiztu egin dela parte-hartzaileen kopurua (124.931 pertsona 2009an, eta 232.382 pertsona 2019an).

1. Grafikoa Hobaridun formakuntzako parte-hartzearen bilakaera. Euskadi. 2017-2019

(parte-hartzaile kopurua)




Iturria: Geuk egina, Fundae oinarri hartuta

Hala ere, emakumeek gizonak baino gutxiago parte hartzen dute formakuntza horretan

Prestakuntza-jardueretan parte hartzen duten hamar pertsonatik ia sei gizonak dira, eta emakumeen proportzioa egonkor mantentzen da –parte-hartze osoaren % 43 inguru– aztertutako aldi osoan (2017-2019 urteak).

Bestalde, eta nahiko egonkor azken hiru urteetan, Erregimen Orokorreko afiliatuen % 52 gizonetakoak dira eta % 48 emakumetakoak. Horrek agerian uzten du hobaridun formakuntzako jarduera gehiago egiten dituztela gizonak (% 56,7) emakumeek baino (% 43,3) afiliazioan duten partaidetzarekin alderatuta (% 52 eta % 48, hurrenez hurren).

2. Grafikoa Hobaridun formakuntzako parte-hartzearen bilakaera generoaren arabera. Euskadi. 2017-2019



Iturria: Geuk egina, Fundae oinarri hartuta


Ikasten duten pertsonen herenak baino gehiagok 36 eta 45 urte bitartean dituzte

Parte-hartzea adinaren arabera aztertuta, honako hau ikus daiteke:

- Gehiengoa 36 eta 45 urte bitartekoen artean kokatzen da: prestakuntza hobaridunaren bidez ikasten duten pertsonen herenak baino gehiagok adin hori du (% 35,6).

- Hamar pertsonatik ia hiruk 46 eta 55 urte bitartean dituzte (% 29,5), pisu handieneko bigarren taldea da, eta hamar pertsonatik bi 26-35 urte artekoak dira (% 21,0).
- Azkenik, adierazi behar da 55 urtetik gorako (% 9,4) eta 16 eta 25 urte bitarteko (% 4,5) pertsonak dutela ekarpen txikiena hobaridun formakuntzako parte-hartzean.

3. Grafikoa Hobaridun formakuntzan parte hartzea eta afiliatutako pertsonak, adinaren arabera. Euskadi. Batez bestekoa 2017-2019



Oharra: Erregimen Orokorrean afiliatutako pertsonak.

Iturria: Geuk egina, Fundae eta Gizarte Segurantza oinarri hartuta

Bestalde, afiliazioaren adinaren araberako banaketa kontuan hartuta, ikusten da 36 eta 45 urte bitarteko pertsonak direla prestakuntzan espezializazio handiena dutenak, afiliazioan duten pisuaren gainerik ikasten baitute (+6,3pp). Halaber, parte-hartze erlatibo handiagoa ikusten da 26 eta 35 urte bitartekoen artean (+2,5pp) eta, neurri txikiagoan, 46 eta 55 urte bitartekoen artean (+0,7pp).

Ostera, 55 urtetik gorako taldeak afiliazioan duen pisuaren oso azpitik ikasten du (-8,7pp). Emaitza horrek agerian uzten du seniorrek parte-hartze txikiagoa dutela prestakuntza-jardueretan (% 9,4), Euskadiko afiliazio osoari egiten dioten ekarpenaren ia erdia baita (% 18,1). Azkenik, 16 eta 25 urte bitarteko gazteak afiliazioan duten pisuaren azpitik daude (-0,9pp).


Parte-hartzea gorakorra da lortutako ikasketak-mailarekin

Erantsitako grafikoan, Euskadin langileek lortutako hezkuntza-maila maximoari dagokionez hobaridun prestakuntzan izandako parte-hartzearen egitura erakusten da. Ildo horretan, honako hau ikus daiteke:

- Parte-hartzeak gora egiten du langileen titulazio-mailak gora egin ahala. Zehazki, Euskadiko parte-hartzaileen ia erdiek goi-mailako ikasketak dituzte (% 43,8).
- Ikasten duten pertsonen heren batek, gutxi gorabehera, erdi-mailako prestakuntza du (% 31,1), eta
- Lehen mailako edo oinarrizko ikasketak (derrigorrezkoak arte) dituzten pertsonen proportzioa guztizkoaren % 24,5 da.

Horrela, berretsi egiten da kualifikazio handiena duten pertsonak direla beren ibilbide profesionalean zehar prestakuntza hobaridunaren bidez gehien prestatzen eta ikasten jarraitzen dutenak.

4. grafikoa Hobaridun formakuntzan parte hartzea, ikasketak-mailaren arabera. Euskadi. Batez bestekoa 2017-2019




Iturria: Geuk egina, Fundae oinarri hartuta

Ikasten duten pertsonen erdiak baino gehiagok zerbitzuen sektorean lan egiten du

Zerbitzuen sektorea da Euskadin hobaridun formakuntzako parte hartzean ekarpen handiena egiten duen jarduera. Zehazki, beste zerbitzu batzuetako jarduerak (% 50,5), merkataritzakoak (% 9,5) eta ostalaritzakoak (% 5,0) partaidetza osoaren % 65 dira.

Era berean, azpimarratzekoa da industriako langileek duten pisua (% 29,1), eraikuntza-sektorearen ekarpena txikiagoa izanik (% 5,6) eta lehen sektorearen pisua oso marjinala (% 0,3).

5. grafikoa Hobaridun formakuntzan parte hartzea eta afiliatutako pertsonak, jarduera-sektorearen arabera. Euskadi. Batez bestekoa 2017-2019



Oharra: Erregimen Orokorrean afiliatutako pertsonak.

Iturria: Geuk egina, Fundae eta Gizarte Segurantzaren oinarri hartuta

Hala ere, industria-jardueretan eta eraikuntzan lan egiten duten pertsonen espezializazio handiagoa dute hobaridun formakuntzan (+8,1pp eta +1,1pp, hurrenez hurren), eta zerbitzuen sektorean, berriz, afiliazioan duten parte-hartzea baino pisu erlatibo txikiagoa dute (-9,5pp). Emaitza horrek erakusten du industriako eta eraikuntzako soldatapeko langileak direla gehien ikasten dutenak.

2.2. Parte-hartzaileen profila eta formakuntza-orduak

Ikasten duen pertsonaren profila: oro har, gizona, 36 eta 45 urte bitartekoa, goi-mailako ikasketak dituen eta zerbitzuen sektorean enplegatua

Euskadin hobaridun prestakuntzan parte hartzen duen pertsonaren profila ezagutzeko asmoz, aurreko atalean aztertutako lau osagaien (generoa, adina, ikasketa-maila eta jarduera-sektorea) emaitzak jasotzen ditu erantsitako taulak.

Laburbilduz, hobaridun formakuntzaren bidez prestatzen den pertsona, oro har, gizonezkoa da (% 56,7), 36 eta 45 urte artekoa (% 35,6), goi-mailako hezkuntzako tituluduna (% 43,8) eta zerbitzuen sektorean lan egiten duena (% 65).

1. taula Hobaridun formakuntzan parte hartzea eta ikasitako ordu kopurua. Euskadi. Batez bestekoa 2017-2019

	Formakuntzan parte hartzea (%)	Formakuntza-orduak parte-hartzaileko
Sexua		
Emakumea	43,3	15,8
Gizona	56,7	16,1
Adina		
16-25 urte	4,5	17,3
26-35 urte	20,9	17,5
36-45 urte	35,6	16,4
46-55 urte	29,6	15,2
55 urte baino gehiago	9,5	12,8
Ikasketa-maila		
Lehen mailakoak	24,5	13,7
Erdi-mailakoak	31,1	16,1
Goi-mailakoak	43,8	17,0
Jarduera-sektorea		
Nekazaritza	0,3	23,0
Industria	29,1	16,8
Eraikuntza	5,6	18,5
Merkataritza	9,5	20,1
Ostalaritza	5,0	16,5
Beste zerbitzuak	50,5	14,3
Guztira	100,0	16,0

Iturria: Geuk egina, Fundae oinarri hartuta

Zenbat formakuntza-ordu egiten ditu, batez beste, parte-hartzaile bakoitzak?

Fundaek argitaratutako informazioak aukera ematen du Euskadin hobaridun prestakuntzan parte-hartzaile bakoitzak ikasten duen batez besteko ordu-kopurua zenbatesteko. Hala, erantsitako taulak erakusten du langileek batez beste 16 ordu egiten dituztela. Hala ere, emaitza hori aldatu egiten da generoa, adina, ikasketa-maila eta jarduera-sektorea bezalako faktoreen arabera:

- Generoaren araberako aldeak oso txikiak dira, baina gizonen ratioa emakumeena baino pixka bat handiagoa da (16,1 ordu parte-hartzaile bakoitzeko, eta emakumeena, berriz, 15,8 ordu).
- Adinaren osagaiak agerian uzten du prestakuntzan parte-hartzea txikiagoa dela langileen adinak gora egin ahala: 17,3 ordukoa da estratu gazteenean (16-25 urte), eta 12,8ra jaisten da adin handieneko taldean (55 urte baino gehiago).
Beraz, 55 urte eta gehiagoko pertsonak gutxiago parte hartzeaz gain, intentsitate txikiagoarekin ikasten dute (sartutako orduak). Ez dute behar? Motibazioa galtzen ari dira? edo Ez da haien beharretara egokitzen?
- Ratioa gero eta handiagoa da lortutako ikasketa-mailarekin: 13,7 ordukoa da oinarrizko hezkuntza-mailan, 16,1 ordukoa erdi-mailan, eta 17 ordura igotzen da hirugarren mailako prestakuntzan.
- Jarduera-sektoreari dagokionez, aipatzekoa da nekazaritza dela parte-hartzaileen proportziorik txikiena biltzen duen jarduera-adarra, baina prestakuntzan ordu gehien ematen dituen da (23 ordu parte-hartzaile bakoitzeko). Jarraian, merkataritzako jarduerak (20,1 ordu) eta eraikuntzakook (18,5 ordu) daude. Aitzitik, beste zerbitzu batzuen segmentuan erregistratzen da ratio txikiena (14,3 ordu).

Azkenik, eta egindako ñabardurak kontuan hartuta, egia esan, formakuntzaren intentsitatea (persona bakoitzeko prestakuntza-ordu gisa) nahiko homoginoa da, eta elementu diskriminatzaileenak pertsonen adina eta lan egiten den sektorea dira.

3. Langileei hobaridun formakuntza eskaintzen dieten enpresak


3.1. Hobaridun formakuntza eskaintzen duten enpresen ezaugarriak

Euskadin, langileei formakuntza ematen dieten hamar enpresatik zazpi zerbitzuen sektorekoak dira

2019an, Euskadin lantaldeei prestakuntza eskaintzen dieten enpresa gehienak hirugarren sektorekoak dira (% 69,7), eta garrantzi berezia dute merkataritza (% 20,8), ostalaritza (% 11,9) eta beste zerbitzu batzuetako (% 37) jarduerak.

Partaidetza txikiagoarekin, industria (% 18,3) eta eraikuntza (% 11,1) daude, eta nekazaritzak, berriz, pisu marjinala du (% 0,9).

6. grafikoa Hobaridun formakuntza eskaintzen duten enpresak, jarduera-sektorearen arabera. Euskadi. 2019




Iturria: Geuk egina, Fundae oinarri hartuta

Langileei prestakuntza eskaintzen dieten enpresen % 62,1ek 10 enplegu baino gutxiago ditu

Erantsitako grafikoak erakusten du Euskadin hobaridun prestakuntza ematen duten enpresa gehienak txikiak direla, kontuan hartuta hamarretik seik 10 enplegu baino gutxiago dituztela (mikroenpresak) eta hamarretik hiruk, gutxi gorabehera, 10 eta 49 enplegu artean dituztela. Oro har, Euskadin lantaldeei formakuntza ematen dieten enpresen % 91k 50 langile baino gutxiago ditu.

Dimentsio handiagoko enpresen proportzioa (50 enplegu eta gehiago) nahiko txikia da: % 7,7k baino ez ditu 50 eta 249 enplegu artean, eta proportzio hori % 1,3raino jaisten da 249 enplegu baino gehiago dituztenen kasuan.

7. grafikoa Hobaridun formakuntza eskaintzen duten enpresak eta enpresak guztira, tamainaren arabera (soldatapeko enplegua). Euskadi. 2019



Oharra: Enpresak guztira atalaren kasuan, azken bi taldeak 50-199 soldatapeko eta 200 baino gehiago dituztenei dagozkie.

Iturria: Geuk egina, Fundae eta Enpresen Direktorio Nagusia (EIN) oinarri hartuta

Hala ere, enpresen guztizkoa tamainaren arabera banatuta (soldatapeko enplegua), argi eta garbi ikusten da espezializazio-tasa handiena 10-49 enpleguko enpresetan dagoela (+19,4pp), eta ondoren 50-249 enpleguko enpresetan (+6,1pp). Hau da, prestakuntzari egiten dioten ekarpena enpresa-sarean duten pisua baino handiagoa da.

Aldiz, tamaina txikiko enpresak (1-9 enplegu artean) dira beren lantaldeei prestakuntza gutxien eskaintzen dietenak; izan ere, maila horretan dago alderik handiena (-26,3pp) formakuntza eskaintzen duten enpresen (62,1%) eta enpresak guztira atalaren artean (88,4%).

3.2. Formakuntza eskaintzen duten enpresei emandako kreditua³

2019an, enpresetako langileak prestatzeko kreditua guztira 29,8 milioi eurokoa da

Enpresek beren langileen prestakuntzarako kreditu bat dute esleituta. Kreditu hori aurreko urtean kotizatutako Lanbide Heziketako kuotaren ehunekoa⁴ da, soldatapeko enplegu-bolumenagatik. Hala ere, enpresak berak dira erabakitzen dutenak esleitutako kredituaren zer zati erabili (erabilitako kreditua). Hau da, agortu dezakete⁵ edo ez.

Erantsitako taulak erakusten du, lehenik eta behin, euskal enpresek 2019an erabilitako kreditu-bolumena 29,8 milioi eurokoa dela. Industria-jarduerek (% 37,5) eta beste zerbitzu batzuek (% 39,8) biltzen dute prestakuntza hobaridunerako kredituaren zatirik handiena, eta ekarpen txikiagoa egiten dute merkataritza- (% 10,8), eraikuntza- (% 6,5) eta ostalaritza-jarduerek (% 4,9).

³ Hobarria jasotzeko egindako edo aitortutako gastua.

⁴ Ehuneko hori Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak ezartzen du, eta enpresaren tamaina zenbat eta txikiagoa izan orduan eta handiagoa da.

⁵ Izan ere, formakuntzan eginiko gastua handiagoa izan daiteke, enpresek egindako prestakuntza guztia ez baita hobariduna.

2. taula Hobaridun formakuntza eskaintzen duten enpresei emandako kreditua, guztira. Euskadi. 2019

	Kreditua guztira (euro)	Egitura (%)
Jarduera-sektorea		
Nekazaritza	133.557	0,4
Industria	11.185.164	37,5
Eraikuntza	1.926.532	6,5
Merkataritza	3.231.502	10,8
Ostalaritza	1.461.219	4,9
Beste zerbitzuak	11.857.970	39,8
Enpresaren tamaina		
Mikroenpresak (1-9 enplegu)	4.370.313	14,7
Txikiak (10-49 enplegu)	7.135.136	23,9
Ertainak (50-249 enplegu)	8.582.450	28,8
Handiak (250 enplegutik aurrera)	9.708.043	32,6
Guztira	29.795.943	100,0

Iturria: Geuk egina, Fundae oinarri hartuta

Bestalde, ikusten da erabilitako kreditu-bolumena nabarmen hazten dela enpresen tamainarekin: zenbat eta langile gehiago, orduan eta kreditu gehiago prestakuntzarako. Izan ere, enpresa handiek ia bikoiztu egiten dute enpresa txikiek jasotako zenbatekoa (9,7 eta 4,4 milioi euro, hurrenez hurren).

Enpresa bakoitzak 1.872,2 euro erabili ditu hobaridun prestakuntzarako

2019an, enpresa bakoitzak Euskadin hobaridun prestakuntzari ekiteko batez besteko kreditua 1.872,2 eurokoa da. Industria-sektoreak bikoiztu egiten du zenbateko hori (3.845 euro/enpresa); ostalaritza, berriz, langileen prestakuntzarako kreditu gutxien erabiltzen duen jarduera-sektorea da (770,7 euro).

Bestalde, aurreko atalean adierazi bezala, enpresa bakoitzeko batez besteko kreditua goranzkoa da plantillen tamainarekin: 442,5 eurokoa da 10 enplegu baino gutxiago dituztenen kasuan, eta 46.898,8 eurora igotzen da 250 enplegu eta gehiagoko enpresetan. Eraitza horiek bat datoz tamainaren faktorearekin: zenbat eta pertsona gehiago, orduan eta gastu orokor handiagoa.

3. taula Hobaridun formakuntza eskaintzen duen enpresa bakoitzeko emandako kreditua. Euskadi. 2019

	Kreditua enpresa bakoitzeko (euro)	Indizea = 100
Jarduera-sektorea		
Nekazaritza	902,4	48
Industria	3.845,0	205
Eraikuntza	1.094,6	58
Merkataritza	976,9	52
Ostalaritza	770,7	41
Beste zerbitzuak	2.011,9	107
Enpresaren tamaina		
Mikroenpresak (1-9 enplegu)	442,5	24
Txikiak (10-49 enplegu)	1.553,8	83
Ertainak (50-249 enplegu)	6.994,7	374
Handiak (250 enplegutik aurrera)	46.898,8	--
Guztira	1.872,2	100

Iturria: Geuk egina, Fundae oinarri hartuta

3.3. Parte-hartzaile bakoitzeko emandako kreditua

Parte-hartzaile bakoitzeko batez besteko kreditua 128,2 eurokoa da

2019an, prestakuntza hobariduneko jarduerak programatzen dituzten euskal enpresek 128,2 euro gastatzen dituzte batez beste parte-hartzaile bakoitzeko. Jarduera-sektorearen eta enpresaren tamainaren arabera nagusiak honako hauek dira:

- Lehen sektoreko enpresek jasotzen dute pertsonako kreditu-bolumen handiena (191,3 euro). Halaber, batez besteko zenbatekoa gainditzen dute industria-jarduerak (161,7 euro), eraikuntzaren sektoreak (150,1 euro) eta merkataritzak (153,3 euro).
- Aitzitik, ostalaritza (118,2 euro) eta beste zerbitzu batzuk (102 euro) ratio orokorraren azpitik daude, eta lehen sektoreari dagokion batez besteko kreditua (191,3 euro) beste zerbitzu batzuen segmentuaren ia bikoitza da (102 euro).

- Azkenik, adierazi behar da parte-hartzaile bakoitzeko batez besteko kreditua beheranzkoa dela enpresaren dimentsioarekin: 269,9 eurokoa da 10 enplegu baino gutxiago dituzten enpresen kasuan, eta 86,6 eurora jaisten da 250 enplegu edo gehiago dituzten enpresen kasuan.

Eraitza horrek berretsi egingo luke hobaridun prestakuntza bereziki diseinatuta dagoela enpresa txikiek ikasteko aukera izan dezaten, kontuan hartuta kreditu erabilgarria kalkulatzeko aplikatzen den ehunekoa⁶ handiagoa dela enpresaren tamaina zenbat eta txikiagoa izan.

4. taula Parte-hartzaile bakoitzeko emandako kreditua. Euskadi. 2019

	Kreditua parte-hartzaileko (euro)	Indizea = 100
Jarduera-sektorea		
Nekazaritza	191,3	149
Industria	161,7	126
Eraikuntza	150,1	117
Merkataritza	153,3	120
Ostalaritza	118,2	92
Beste zerbitzuak	102,0	80
Enpresaren tamaina		
Mikroenpresak (1-9 enplegu)	269,9	210
Txikiak (10-49 enplegu)	168,4	131
Ertainak (50-249 enplegu)	139,1	109
Handiak (250 enplegutik aurrera)	86,6	68
Guztira	128,2	100

Iturria: Geuk egina, Fundae oinarri hartuta

⁶ Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak ezartzen du.

4. Ondorioak

4.1. Laburpena: emaitza nagusiak

Amaitzeko, Euskadiko hobaridun prestakuntzaren bilakaeraren eta hura osatzen duten aldagaien (pertsonek eta enpresak) ikuspegi orokorra lortze aldera, egindako azterketaren indar-ideia nagusiak jasotzen dira jarraian:

1. Ikasten duten pertsonak

- ✓ Gero eta pertsona gehiagok parte hartzen dute hobaridun prestakuntzan, Euskadi pertsonen ikaskuntzarekin konprometitutako lurraldea dela erakutsiz
- ✓ Gizonek emakumeek baino apur bat gehiago ikasten dute
- ✓ Adina faktore erabakigarria da: 36 eta 45 urte bitarteko pertsonak dira aktiboenak prestakuntzan, eta seniorrak, berriz, gutxiago eta intentsitate txikiagoarekin ikasten dute.
- ✓ Gero eta ikasketa-maila handiagoa, orduan eta parte-hartze handiagoa
- ✓ Industria-sektorea da prestakuntza gehien egiten duena

2. Formakuntza eskaintzen duten enpresak

- ✓ Orokorrean, zerbitzuen sektorekoak eta txikiak (10 enplegu baino gutxiago)
- ✓ Hala ere, 10-49 enpleguko enpresen parte-hartze erlatiboa handiagoa da
- ✓ 2019an 29,8 milioi euro bideratzen dira formakuntza finantzatzera
- ✓ Industria-enpresak dira gehien gastatzen dutenak (3.845 €/ enpresa) eta ostalaritza-enpresak (770,7 €), gutxien
- ✓ Pertsonako batez besteko kreditua handiagoa da enpresa zenbat eta txikiagoa izan; horrela, hobaridun formakuntzak enpresa txikiak laguntzea du helburu



Izenburua: Hobaridun formakuntza Euskadin
71. Dokumentua, 2020ko iraila

Koordinazioa eta gainbegiratzea: Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko
Departamentua
Gipuzkoako Foru Aldundia

Lanketa IKEI, research & consultancy S.A.